

INFORMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA

ATHLETIC CLUB





1.- Prozedura honen helburua

Zigor Kodea aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak, 2015eko uztailaren 1etik indarrean dagoenak, aldaketa garrantzitsuak egin zituen pertsona juridikoen erantzukizun penalaren araubidean. Berritasun garrantzitsuenetako bat izan zen arrisku penalen prebentziorako betetze-programek (*compliance programs* izenekoak) bete behar dituzten baldintzak ezarri zirela, pertsona juridikoak beren baitan egindako delituengatik erantzukizun penaletik salbuesteko.

Athletic Clubek Arrisku Penalak Prebenitzeko Sistema bat ezarri zuen, eta, bereziki, salaketa-kanal bat, Bikaintasun Politikan eskatutako konpromiso gisa, kultura etiko eta normatiboagatik, eta delitu izan daitekeen edozein portaeraren aurrean zero tolerantzia izateagatik. Era berean, Kluba aitzindaria izan zen LaLigako klubuen artean, kirol-eremuan Haurrak Babesteko Programa bat (Aterpe programa) sortzean. Programa hori Haurrak Babesteko arduradun batek kudeatzen du.

Otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, Espainiako Zuzenbidean txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua, eta zuzenbide positiboan jasotzen du arau-haustek lan- edo lanbide-testuinguru batean hautematen dituzten eta bertan araututako mekanismoen bidez komunikatzen dituzten pertsonak babesteko funtsezko helburua (aurrerantzean, **2/2023 Legea**).

2/2023 Legearen eremu materiala 2018/1937 Zuzentaruauan jasotakotik harago zabaltzen da, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteetara mugatzen baita, eta gure ordenamendu juridikoko arau-hauste penal eta administratibo larriak eta oso larriak ere barne hartzen ditu; horien artean sartzen dira Herri-Ogasunari eta Gizarte Segurantzari kalte ekonomikoa eragiten dieten arau-hauste guztiak.

Babes horren hartzaileak honako hauek dira: aipatutako arau-hausteen berri eman eta sektore publikoko zein pribatuko erakundeekin lanbide- edo lan-loturak dituzten pertsonak, bai eta lanbide-harremana amaituta dutenak, langile boluntarioak, praktiketan edo prestakuntza-aldian daudenak, edo hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenak ere. Babesa ematen die, halaber, informatzaile gisa jarduten dutenei, errepresaliak jasan



ditzaketen inguruko pertsoneri eta informatzailearen jabetzako pertsona juridikoei, besteak beste.

2/2023 Legearen edukia ez da soilik salatzaileen babes hori modu erretorikoan aitortzera mugatzen; aitzitik, hura gauzatzen den maila eta eremu guztietan babes hori gauzatzeko beharrezkoak diren mekanismoak sortzea xedatzen du. Horrela, agintari publikoek kudeatutako kanpo-kanalak egoteaz gain, enpresen barruan eta erakunde publiko guztietan informaziorako eta salaketarako barne-kanalak sortzea eta antolatzea ezartzen du. Horiek horrela, lehen aipatutako Europako arau-testuaren ildo beretik, jardunbide irregularrei buruzko barneko informazio-sistema hori lehentasunez erabiltzea erabaki du, eragindako erakundeak berak haren berri izan dezan; izan ere, erakundearen barruan jarduera arduratsu eta eraginkor batek ikertutako jarduketan ondorio kaltegarriak geldiaraztea eta gerta daitezkeen kalteak ahalik eta lasterren konpontzea ahalbidetzen duela uste du.

2/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera, barneko informazio-sistema bat sortu da Athletic Cluben (aurrerantzean, “**BIS**”).

BIS da 2/2023 Legean aurreikusitako ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioa emateko lehentasunezko bidea. Protokolo honen xedea da, Athletic Cluben BISren esparruan, komunikazioak kudeatzeko prozedura ezartzea, 2/2023 Legean (aurrerantzean, “**Prozedura**”) aurreikusitako baldintza berriak betetzen direla bermatzeko.

Nolanahi ere, 2/2023 Legeak, halaber, kanpo-kanal bat ezartzen du Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentearen aurrean (aurrerantzean, “**IBA**”) edo autonomia-erkidegoan sortzen diren agintaritza eskudunen aurrean, dagokion jakinarazpena egiteko, hargatik eragotzi gabe gainerako agintaritza eskudunengana ere jotzeko aukera, kasuan kasuko arau-haustearen izaeraren arabera.

2.- Aplikazio-eremua

Prozedura hau Athletic Clubi zuzendutako komunikazio guztiei aplikatuko zaie, baldin eta Klubeko profesionalek edo 2/2023 Legearen aplikazio-eremu pertsonalean sartuta dauden pertsonetako edozeinek egiten badituzte, Athletic Clubek garatutako jardueraren esparruan egindako arau-hauste (edo arriskuko arau-hauste) penal, administratibo edo indarreko



araudiaren edo Kode Etikoaren aurkako beste edozein portaera (arau-hauste burutuak barne, arau-hauste horiek ezkutatzeko saiakeran edo edozein saiakeran egindakoak) gertatu badira eta laneko edo lanbideko testuinguru batean ezagutu badira.

Halaber, Athletic Clubi zuzendutako komunikazio guztietan aplikatuko da, informatzaile berberak egiten dituztenean, Aterpe programaren salaketa-kanalaren esparruan (programa horren xedea da haurrak kirol-eremuan babestea).

Aurreko paragrafoetan aipatutako pertsona guztiak honela aipatuko dira aurrerantzean: **“Informatzailea”** edo **“Informatzaileak”**.

Nolanahi ere, barne-informazioko sistema ez da erabili behar kexa orokorrak aurkezteko edo prozeduraren aplikazio-eremuan sartzen ez diren iritzi edo sentimendu pertsonalak partekatze bide gisa, ez eta pertsonen arteko gatazka hutsekin lotutako informazioa transmititzeko edo informatzaileari eta komunikazioaren eraginpeko pertsonari soilik eragiten dieten informazioa transmititzeko ere, lan-giro normalean neurritz kanpokatzen jo ezin diren eta Kode Etikoa edo aplikatu beharreko legeria urratzen ez duten gertakariak dagokienez. Atal honetan aurreikusitako baldintzetan komunikazio-gai ez diren gainerako gai guztiak Klubak horretarako dituen bide edo bitartekoen bidez jakinarazi beharko dira.

3.- BISren organo arduraduna

Prozedura honetan arautzen den BISa kudeatzeko organo arduraduna pertsona bakarrekoa izango da, eta Klubeko Zuzendaritza-Batzordeak izendatuko du, Zuzenbidean dituen ezagutza espezializatuak kontuan hartuta (aurrerantzean, **“Arduraduna”**).

Arduraduna arduratuko da prozedura hau benetan ezartzen dela zaintzeaz eta komunikazioak arduraz izapidetzeaz, eta modu independentean eta autonomoan jardungo du gainerako barne-organoez, Athletic Clubeko Zuzendaritza-Batzordea barne. Arduradunak ezin izango du inolako jarraibiderik jaso bere jardunean, eta bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak izan beharko ditu.



Arduradunaren izendapena eta kargu-uztea IBARI jakinarazi beharko zaizkio, edo, hala badagokio, Euskadin eskumena duten agintari edo organoei. Jakinarazpen hori dagokion izendapena edo kargu-uztea gertatu eta hurrengo hamar egun balioduneko epean egin beharko da, eta kargu-uztearen kasuan, hori justifikatzen duten arrazoiak zehaztu beharko dira.

4.- Komunikazioaren aurkezpena

4.1 Komunikazioa egiteko bideak

Informatzaileek prozedura honen xede diren komunikazioak aurkezteko bide hauetakoren bat aukeratu ahal izango dute:

1.- Idatziz:

- a) .- Arduradunari berariaz ezarritako plataformaren bidez jakinarazita. Plataforma hori Klubaren webgunean identifikatuko da.
- b) .- posta arruntez, helbide honetara: Arauak Betetzeko Arduraduna, Athletic Club Ibaigane, Mazarredo 23, 48009, Bilbao;

2.- Ahoz:

- a) .- Arduradunari ahots-mezua bidaliz horretarako ezarritako plataformaren bidez, Klubaren webgunean identifikatuko dena; edo
- b) .- informatzaileak alde aurretik eskatuta, Arduradunarekin bilera bat eginez (aurrez aurrekoa, telematikoa edo telefono bidezkoa).

Ahozko komunikazioak, bilera bidez egindakoak barne, modu hauetakoren batean dokumentatu beharko dira, informatzailearen alde aurreko baimenarekin: (i) elkarrizketa formatu seguru, iraunkor eta irisgarrian grabatuz eta/edo, hala badagokio, (ii) elkarrizketa tratatzeko ardura duten langileek egindako elkarrizketaren transkripzio oso eta zehatz baten bidez. Datuak babesteari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideak alde batera utzi gabe, ahozko komunikazioa transkribatzen bada, informatzaileari aukera emango zaio bere sinaduraren bidez elkarrizketaren transkripzioa egiaztatzeko, zuzentzeko eta onartzeko.



Erabat debekatuta daude egindako komunikazioak, jakinda bertan azaldutako gertaerak faltsuak direla.

Hala ere, salatua Arduraduna bera bada, Klubeko Zuzendari Nagusiari aurkeztu ahal izango zaio salaketa.

4.2 Hartu izana adieraztea eta informatzailearekin harremanetan jartzea

Komunikazioa jaso eta hurrengo zazpi egun naturalen barruan, jakinarazpena jaso izanaren agiria bidaliko zaio informatzaileari, informazioaren konfidentziasuna arriskuan jar dezakeenean izan ezik.

Hartu izanaren adierazpenean sar daitekeen informazio gehigarria alde batera utzi gabe, informazio horrek, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: (i) informatzailearen datuen tratamenduari buruzko informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak ezarritakoaren arabera, eta (ii) agintaritza eskudunen aurrean eta, hala badagokio, Europar Batasuneko instituzio, organo eta erakundearen aurrean dauden kanpo-kanalei buruzko informazioa.

Informatzailearekin harreman jarraitua izateko aukera ematen da, eta, beharrezkotzat jotzen bada, komunikatutako gertakariei buruzko informazio gehigarria eskatzeko aukera. Horrela, informatzaileak helbide bat, helbide elektronikoa edo leku seguru bat adierazi ahal izango du, dagozkion komunikazioak jasotzeko.

5.- Jakinarazpena izapidetzearen onarpena

5.1 Arduradunak 4.1 atalean aurreikusitako bideren batetik komunikazioa jasotzen duenean, hura izapidetzeko onartzeari buruzko erabakia hartu beharko da.

Usteko jazarpen-egoerekin lotutako komunikazioa bada, Arduradunak berehala eta alde zuzenaz azterketarik egin gabe partekatuko du Jazarpena Prebenitzeko Batzordearekin, eta laneko jazarpena prebenitzeko jardura-protokoloan xedatutakoa beteko da. Horrenbestez, balizko jazarpen-egoerei buruzko komunikazioak izapidetzeko onartzea eta ondoren izapidetzea Protokolo horretan aurreikusitakoaren arabera egingo da.



Kirol-arloan haurrak babesteko Aterpe Programaren salaketa-kanalaren esparruko komunikazioa bada, Arduradunak berehala eta aldez aurreko azterketarik egin gabe partekatuko du Athletic Clubeko Haurrak Babesteko Arduradunarekin, eta Aterpe Programaren jarduera Protokoloan xedatutakoa beteko da. Horrenbestez, balizko jazarpen-egoerei buruzko komunikazioak izapidetzeko onartzea eta ondoren izapidetzea Protokolo horretan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

5.2 Arduradunak jakinarazpena izapidetzea onartuko du, honako kasu hauetan izan ezik:

- (i) kontatutako gertakariak egiantzik ez dutenean edo egiazkotasun-zantzurik ez duten iritzi pertsonal hutsetan oinarritzen direnean;
- (ii) egitateak ez direnean arau-hauste penal edo administratibo bat egin izanari buruzkoak, ez eta Athletic Clubek garatutako jardueraren esparruan egindako legezko araudi aplikagarriaren edo Kode Etikoaren aurkako beste edozein jokabide egin izanari buruzkoak ere;
- (iii) komunikazioak argi eta garbi oinarririk ez duenean edo oinarri duen informazioa delitu baten bidez lortu izanaren arrazoizko zantzuak daudenean; eta
- (iv) komunikazioa aurretiazko komunikazio baten xede diren egitatei buruzkoa denean eta izapidetzea justifikatzen duen informazio berri eta esanguratsurik ez duenean.

5.3 Aurreko puntuan deskribatutako egoeraren bat gertatuz gero, Arduradunak jakinarazpena artxibatzea erabakiko du, ebazpen arrazoitu bidez. Erabaki hori informatzaileari jakinarazi beharko zaio ahalik eta lasterren eta, nolana ere, hartu izanaren adierazpena bidali eta hiru hilabeteko epean.

5.4 Izapidetzeko onartzeari buruz erabakitze aldera, Arduradunak informazio gehigarria eskatu ahal izango dio informatzaileari, informatzaileak helbide, posta elektronikoa, bitarteko edo komunikazioak jasotzeko leku segurua adierazi badu. Gainera, Arduradunak egin ahal izango ditu arau-hauste mota zehazteko eta ez onartzeko arrazoirik ez dagoela egiaztatzeko behar-beharrezkoak diren ikerketa-jarduketak, eta, horretarako, Athletic Clubeko beste kide batzuen eta kanpoko aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, dagokionaren arabera.



5.5 Ez onartzeko arrazoi horiek ematen ez badira, Arduradunak 6.1 atalean xedatutakoaren arabera izapidetuko du barne-ikerketaketa.

5.6 Gertaeren larritasuna kontuan hartuta, Arduradunak komunikazioaren berri emango die Zuzendaritza-Batzordeko Presidenteari eta Idazkariari, bai eta egindako ikerketaren irismenaren eta emaitzaren berri ere, salatuak direnean izan ezik. Kasu horretan, ikertuen berezko bermeak aplikatuko zaizkie, eta, hala badagokio, neurri egokiak hartu ahal izango dituzte balizko interes-gatazkak arintzeko. Puntu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, larritzat joko dira Athletic Cluben ospe- edo ekonomia-eragin nabarmena izan dezaketen gertakariak.

Zuzendaritza-Batzordeko Presidenteak eta Idazkariak komunikazioen izapideetan eta jarraipenean parte hartzen duten gainerako pertsonen konfidentzialtasun-betebehar berberak izango dituzte, eta ez diote jarraibiderik emango arduradunari komunikazioa onartzearen eta izapidetzearen inguruan, prozedura honetan eta 2/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera.

6.- Barne-ikerketaketa izapidetzea

6.1 Ikerketaz arduratzen den organoa

Barne-ikerketaren izapideak Arduradunak egingo ditu. Hura izango da ikerketaren instruktorea eta prozedura honen 6.2 atalean aipatzen diren ikerketaketa-eginbideak gauzatzeaz eta ikerketaketa-txostenaren proposamena egiteaz arduratuko dena.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Arduradunak beste pertsona bati edo batzuei agindu ahal izango die instrukzioa egiteko, kasuan kasuko inguruabarren arabera, ikertu beharreko egitateekin lotutako interes-gatazkarik dagoen kontuan hartuta.

Agintaritza eskuduna ikerketaren xede diren egitateak ikertzen ari bada, ikerketaketa-organok kontuan hartuko du inguruabar hori prozedura honen 6.2 atal honetan adierazitako ikerketaketa-eginbideak egitea egokia den ala ez baloratzeko orduan.



Ikerketa garatzeko, instruktoreak honako hauen laguntza izan dezake:

- (i) Athletic Clubeko edozein kide, gertakariak behar bezala ikertzeko beharrezkoa bada;
- (ii) forensic zerbitzuetan espezializatutako kanpoko adituak; eta
- (iii) ikerketa behar bezala garatzen lagun dezakeen kanpoko edozein profesional.

6.2 Ikerketa-eginbideak

Arduradunak gertakariak argitzeko beharrezkoak diren ikerketa-eginbide guztiak kudeatuko ditu.

Eginbide horiek honelakoak izan daitezke:

- (i) elkarriketak egitea ikertuarekin edo beste pertsona batzuekin, eta, egokitzat jotzen bada, xede horretarako egokia den edozein euskarritan dokumentatu edo erregistratu ahal izango dira;
- (ii) hirugarrenei informazioa eta dokumentazioa eskatzea;
- (iii) beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio guztia biltzea Athletic Clubeko edozein kiderengandik;
- (iv) kanpoko ikertzaileen laguntza eskatzea, informazio edo dokumentazio jakin bat aztertzeko;
- (v) espezialisten txostenak eskatzea;
- (vi) Athletic Clubek bere profesionalen eskura jartzen dituen sistema informatikoetara eta gailuetara sartzea (adibidez, mahai gaineko ordenagailuak eta eramangarriak, posta elektronikoko kontuak, biltegitratzeko gailuak, telefonia mugikorra, etab.), Athletic Cluben posta-kontuetatik bidalitako mezu elektronikoak edo Athletic Cluben posta-kontuetan jasotakoak barne; eta
- (vii) instruktoreak egitateak ikertzeko egokitzat jotzen duen beste edozein eginbide.

Arduradunak egindako eginbide guztiak konfidentzialak izango dira, prozedura honetan aurreikusitako moduan.



6.3 Barne-ikerketaren amaiera

Barne-ikerketak ikertutako arau-haustea egin dela baieztatzen badu, Arduradunak dagozkion jarduketak egitea proposatu beharko du, eta organo eskudunari helarazi, izapidetu eta/edo onar ditzan.

6.4 Ikerketa-jarduerei erantzuteko epea

2/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera, ikerketa-jarduketei erantzuteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoa aplikatzeari dagokionez, “*erantzuna*” hitzaren adierazpena da “*salatzaileri salaketaren jarraipena egiteko aurreikusitako edo hartutako neurriei buruz eta jarraipen horren arrazoiei buruz emandako informazioa*”, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren 5. artikuluan zehazten den bezala.

Epea beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da gehienez, konplexutasun bereziko kasuetan.

6.5 Ministerio Fiskalari jakinaraztea

2/2023 Legearen 9.2.j) artikuluan datorrenarekin bat eginik, Espainian delituzko egitate bat egin izanaren zantzuak hautematen badira, informazioa berehala bidaliko zaio Ministerio Fiskalari, edo, egitateek Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete, Europako Fiskaltzari. Lege-aurreikuspen horren aplikazioak, jakina, kontuan hartu beharko ditu ordenamendu juridikoan kasu bakoitzaren inguruabarren arabera aplikatzekoak diren gainerako arauak eta eskubideak.

7.- Ikerketa egiteko eskubideak eta betebeharrak

7.1 Konfidentzialtasun-berme orokorra

7.1.1 Jasotako komunikazioen eta egindako ikerketaren konfidentzialtasuna gordeko da, prozedura honetan aurreikusitako baldintzetan. Barne-ikerketa guztiak behar den



errespetuarekin egingo dira, bai informatzailearen eskubideak, bai eragindako edo ikertutako pertsonarenak.

7.1.2 Arduradunak onartu eta ikertuko dituen komunikazioak artxibatu eta kudeatuko dira, halako moldez non ikerketaren izapidetze eta jarraipenaren edozein fasetan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsonak soilik izango duten haien edukira sartzeko aukera.

7.1.3 Athletic Cluben ospe- edo ekonomia-eragin nabarmena izan dezaketen gertaerei buruzko komunikazioen izapidetzearen berri eman beharko zaie Zuzendaritza-Batzordeko Presidenteari eta Idazkariari, hargatik eragotzi gabe balizko interes-gatazkak arintzeko neurri egokiak hartzea.

Zuzendaritza-Batzordeko Presidenteak eta Idazkariak komunikazioen izapideetan eta jarraipenean parte hartzen duten gainerako pertsonen konfidentzialtasun-betebehar berberak izango dituzte, eta ez diote jarraibiderik emango Arduradunari, komunikazioa prozedura honetan eta 2/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera izapidetzeari dagokionez.

7.1.4 Athletic Cluben kontu-auditoretzaren edo Klubaren erantzukizun zibileko aseguruaren esparruan, Arduradunak informazioa eman ahal izango du, ikuskatzaileak edo aseguru-polizaren frankiziak ezarritako materialtasun-atalaseak gainditzen dituen edo gaindi ditzakeen gertakizunen bat dakarten komunikazio edo ikerketei buruz.

7.2 Informatzailearen eskubideak eta betebeharrak

7.2.1 Informatzailearen identitatearen konfidentzialtasun-bermea prozedura honen printzipio gidaria da. Alde horretatik, informatzailearen nortasuna honako kasu hauetan soilik jakinarazi ahal izango da, beharrezkoa den neurrian:

- (i) Zuzenean edo zeharka komunikazioaren analisisian edo ikerketaren izapidetzearen eta jarraipenaren edozein fasetan parte hartzen duten Athletic Clubeko kideei, bai eta Athletic Clubeko Datuak Babesteko ordezkariari ere, prozedura honen 8. atalean aurreikusitako baldintzetan, eta horiek, nolana ere, konfidentzialtasun zorrotza gorde beharko dute;



- (ii) komunikazioa jasotzen eta izapidetzen parte hartzen duten kanpoko profesionalei, informatzailearen nortasuna isilpean gordetzeko betebeharrak izango baitute;
- (iii) agintaritza judizialari, Ministerio Fiskalari edo administrazio-agintaritza eskudunari, ikerketa penal, diziplinazko edo zehatzaile baten esparruan, 6.5 paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe. Kasu horietan, informatzaileari jakinarazi beharko zaio bere nortasuna jakinarazi aurretik, salbu eta informazio horrek ikerketa edo prozedura judiziala arriskuan jar badezake.

7.2.2 Prozedura honetan aurreikusitako kasuetatik kanpo informatzailearen nortasuna zabaltzen bada, horren berri emango zaio informatzaileari, salbu eta informazio horrek arriskuan jar baditzake abian dauden ikerketa edo prozedura judizialak.

7.2.3 Inola ere ez zaie jakinarazpenean ikertutako edo ukitutako pertsonen informatzailearen identitatea jakinaraziko, ezta hura identifikatzeko datu pertsonal zehatzik ere.

7.2.4 Informatzaileak hala nahi badu, komunikazioak modu anonimoan egin ahal izango ditu.

7.2.5 Informatzailea ezin izango da zigortu eta ezin izango du inolako ondorio negatiborik edo errepresaliarik (edo mehatxurik edo saiakerarik) jasan jakinarazpena egin duelako edo araudiaren aurkako instrukzio bat bete ez duelako. Errepresaliarik ez izateko berme hori informatzailearekin lotutako pertsona fisiko eta juridikoetara zabaltzen da, baita informatzaileak zerbitzuak ematen dituen erakundearen esparruan prozesuan informatzaileari laguntzen dioten pertsona fisikoetara eta informatzaileari aholkuak eta laguntza emateko eginkizunak betetzen dituzten langileen legezko ordezkarietara ere.

7.2.6 Hala ere, informatzailea babesteko aurreko paragrafoetan aurreikusitako bermeak ez zaizkie aplikatuko honako hauen berri ematen duten pertsonen:

- (i) informazioa faltsua dela jakinda edo egia ausarkeriaz errespetatuz (kasu horretan, informatzaileari diziplina-zehapena edo legezko neurriak ezarriko zaizkio, aplikatzekoak diren arauetan aurreikusitako erantzukizun administratibo, penal eta/edo zibilak kontuan hartuta);



- (ii) prozedura honetan aurreikusitako arrazoiren batengatik izapidetzeko onartu ez diren komunikazioetako informazioak;
- (iii) pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioen gaineko informazioa edo informatzaileari eta jakinarazpenean aipatzen diren pertsoneri soilik eragiten dien informazioa, lan-giro normalean neurritz kanpokotzat jo ezin diren eta Kode Etikoa edo aplikatu beharreko legezko arauak urratzen ez dituzten gertaerei dagokienez;
- (iv) jendearentzat erabat eskuragarri dauden edo zurrumurru hutsak diren informazioak.

7.3 Ikertuaren eskubideak eta betebeharrak

Ikertuak eskubidea du egozten zaizkion ekintzen edo ez-egiteen berri izateko eta barne-ikerketaren instruktoreak eskatzen duen guztietan esateko duena entzuteko. Hala ere, ikertuari ikerketa egin dela jakinaraziko zaio ikerketa behar bezala gauzatuko dela bermatzeko egokitzat jotzen den denboran eta moduan. Nolanahi ere, gertakariak argitzeko beharrezko eginbide guztiak egin ondoren, ikerketaren berri emango zaio, 6.3 atalean aurreikusitako ikerketa ixteko jarduketak egin aurretik.

Espedientea izapidetzen den bitartean, ikertuak eskubidea izango du errugabetasun-presuntzioa, ohorerako eskubidea eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitako gainerako eskubideak izateko. Eskubide horiek baliatzeko, informatzailearen identitatearen konfidentzialtasun-printzipioa bete beharko da. Gainera, ikertutako pertsonari Athletic Clubek ikerketaren ondorioz har ditzakeen erabakien berri emango zaio.

Komunikazioa artxibatzen bada, ezin izango da ondoriorik izan ikertuarentzat, eta gaia ezin izango da dokumentatu haren artxibo pertsonaletan.

7.4 Ikerketan laguntzen duten ikertu gabeko pertsonen eskubideak eta betebeharrak

Athletic Clubeko Kode Etikoari lotutako pertsona guztiek lagundu beharko dute barne-ikerketan. Bereziki, aplikatu beharreko araudiaren arabera, honako hauek egin beharko dituzte:



- Arduradunaren aurrean agertzea, hala eskatzen bazaie, egiten zaizkien galdera guztiei erantzunez;
- instruktoreak egindako informazio- edo dokumentazio-errekerimendu guztiei erantzutea;
- Arduradunari ikertutako gertaerak ikertzeko eta argitzeko balio duten dokumentu guztiak ematea; eta
- ikerketaren existentziari eta edukiari buruzko konfidentzialtasunari eustea.

Aurreko betebeharrak betetzen ez badira, garrantziaren eta inguruabarren arabera, zehapenak ezarri ahal izango dira, aplikatzekoa den araudiaren arabera, edo egin beharreko jarduketak egin ahal izango dira, arau-hausleak Athletic Clubekin duen harreman motaren arabera.

Arduradunak egindako dokumentazio- eta informazio-errekerimenduek ikertu beharreko egitateei buruzkoak izan beharko dute, eta horiek argitzeko behar-beharrezkoak eta egokiak izan beharko dute.

Ikerketan laguntze hutsak ez du inoiz zehapenik, errepresaliarik edo bestelako ondorio negatiborik ekarriko.

8.- Datu pertsonalen babesa

Athletic Clubeko Zuzendaritza-Batzordea izango da barneko informazio-sistema erabiltzearen eta barne-ikerketak (aurrerantzean, “**Datu Pertsonalak**”) izapidetzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, prozedura horren eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera.

8.1 BISaren kudeaketa eta datuen babesa sisteman

Datu pertsonalak komunikazioa prozesatzeko eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartzeko erabiliko dira, eta datuen tratamendu hori Athletic Cluben legezko betebeharretan oinarrituta egingo da. Komunikazioak jasotzeko kanalaren barruan tratatuko dira datu pertsonalak, eta denbora nahikoa eta proportzionala izango da haiek onartzeari buruzko erabakia hartzeko, eta ez zaizkie hirugarrenei komunikatuko, non eta ez den beharrezkoa



sistemak behar bezala funtzionatzeko edo izapidetzeko onartzeari buruzko erabakia hartzeko.

Datuak onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartu ondoren, datu pertsonalak komunikazioak jasotzeko kanaletik ezabatuko dira, eta, nolahi ere, erabakirik hartu ez bada, erregistratzen diren hiru hilabete igarota. Hala ere, denbora gehiagoz gorde ahal izango da informazio mugatua, sistemaren funtzionamendua agerian uzteko. Onartzen ez diren komunikazioak anonimoki baino ezin izango dira gorde.

8.2 Barne-ikerketa izapidetzea eta datuak ondoren gordetzea

Komunikazioa izapidetzeko onartzen bada, ikerketaren ardura duen taldeak komunikazioak jasotzeko kanaletik kanpo tratatu ahal izango ditu Datu Pertsonalak, prozedura honetan araututako barne-ikerketa egiteko. Tratamendu hori Athletic Cluben legezko betebeharrak betez egingo da. Ikerketa egiteko eta legezko betebeharrak betetzeko behar den denborarako tratatuko dira datu pertsonalak, eta ikerketa egiteko (adibidez, zerbitzu-hornitzaileak edo kanpoko aholkulariak) edo ondoren dagozkion neurri zuzentzaileak hartzeko (adibidez, giza baliabideen Arduraduna, langile baten aurka diziiplina-neurriak hartu behar direnean) egokia denean soilik jakinaraziko zaizkie hirugarrenei.

Informatzailearen identitatea agintaritza judizialari, Ministerio Fiskalari edo administrazio-agintaritza eskudunari jakinarazi ahal izango zaio, ikerketa penal, diziplinazko edo zehatzaile baten esparruan, 6.5 zenbakian aurreikusitakoa alde batera utzi gabe. Ondorio horietarako egiten diren jakinarazpenek araudi aplikagarrian ezarritako babesak bete beharko dituzte. Bereziki, inguruabar hori informatzaileari jakinaraziko zaio haren nortasuna jakinarazi aurretik, salbu eta informazio horrek ikerketa edo prozedura judiziala arriskuan jar badezake.

Emandako informazioa edo haren zati bat egiazkoa ez dela egiaztatzen bada, berehala ezabatu beharko da inguruabar horren berri izaten den unetik, salbu eta egiazkotasun-falta hori ez-zilegi penala izan badaiteke; kasu horretan, informazioa gorde egingo da prozedura judiziala izapidetzen den bitartean.

Ikerketa amaitu ondoren, dagozkion neurriak hartzeko eta betearazteko behar den denboran gordeko dira datu pertsonalak, eta, ondoren, legezko edo kontratuzko edozein ekintzaren gehieneko preskripzio-epean. Datuak ez dira inola ere gordeko hamar urte baino gehiagorako.



8.3 Datu pertsonalak babesteko eskubideak baliatzea

Aurretiazko izapidetze- edo ikerketa-prozesuan sartuta dauden pertsonak, prozedura honetan aurreikusitakoaren arabera, arduradunarengana jo ahal izango dute, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko, transferitzeko, mugatzeko edo dagokion espedientean agertzen diren datuei buruz araudiak aitortutako beste edozein eskubide baliatzeko, aplikatzekoa den legerian aurreikusitako baldintzetan. Hala ere, egitateak egozten zaizkion pertsonak edo hirugarren batek datuetan sartzeko eskubidea baliatzen duenean, ez zaizkio informatzailearen identifikazio-datuak jakinaraziko.

8.4 Erregistro-liburua

Arduradunak zainduko du jasotako komunikazioen eta sortu diren barne-ikerketen erregistro-liburua egiten dela, prozedura honetan eta aplikatu beharreko araudian aurreikusitako konfidentzialtasun-betekizunak eta datuen babesaren arloko betebeharrak bermatuz.

Erregistro-liburu hori ez da publikoa izango, eta haren edukia eskuratu ahal izango da soilik agintaritza judizial eskudunak eskaera arrazoitua egiten badu, prozedura judizial baten esparruan eta haren babespean.

9.- Prestakuntza eta hedapena

Prozedura hau Athletic Clubeko langile guztiei jakinaraziko zaie, eta Klubeko kideei zuzendutako prestakuntza-ikastaroen xede izango da.

Gainera, web-orrian atal zehatz bat sartuko da, prozedura honen xede den barneko informazio-sistemaren existentziari buruzkoa, bai eta kanal etikoa eskuratzeari eta erabiltzeari buruzko jarraibideak eta prozedura honen funtsezko printzipioak ere.

10.- Diziplina-araubidea

Prozedura honetan xedatutakoa ez betetzeak diziplina-zehapenak ezartzea edo dagozkion jarduketak egitea ekar dezake, arau-hausleak Athletic Clubekin duen harreman motaren



arabera (alde batera utzi gabe horren ondorioz sor daitezkeen administrazio- edo zigorzehapenak), atal honetan eta aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Diziplina-espedientea hasi eta garatzeko eta diziplina-zehapena ezarri eta jakinarazteko jarraitu beharreko prozedura kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera izango da, arau-hausleak Athletic Clubekin duen harremanaren arabera.

11.- Prozedura indarrean sartzea

Prozedura hau 2023ko ekainaren 13an jarriko da indarrean.

Prozedura honek indargabetu egiten du Klubean salaketak izapidetzeko dagoen aurreko edozein prozedura.